



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2019-02-14

BILERA ZENBAKIA:56

ORDUA ETA LEKUA: 18:30tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Javi, Maider, Aiora, Itziar.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA.

2. 2019KO ANTOLAKUNTZA

3. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA LANTZEKO DIRU LAGUNTZA.

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA.

Azken akta onartu da.

2. 2019KO ANTOLAKUNTZA

2019a Ongizate Lantaldeak hausnarketarako urte bezala hartuko du aurreko aktan esan bezala. Horretarako garrantzitsu ikusten da aurreko urteetan hitz egindakoak berreskuratu eta errepasatzea.

Epe laburrera dauden ardurak, nahiz urte osokoak zerrendatu eta banatu dira.

Arduren zerrenda:

Urte osokoak:

- Kirol taldekoekin koordinatu. (gimnasioa aurrera eramateko koordinazioa aurrera eraman, Idoia eta Aloñarekin ere hitz egin beharko da, beharrak eta aukerak ikusteko)
- Emakume taldekoekin koordinatu.
- Kultura lantaldekoekin koordinatu.
- Gizarte Langilearekin koordinatu.
- Guraso elkartearekin koordinatu.
- Zinegotzien bileran parte hartu



- Goiekiren nondik norakoak jarraitu.
- Eskolarekin koordinatu.
- Guztion herrian Ongizate Lantaldearen ordezkari gisa parte hartu.
- Diru zaina.
- Komunikazioaz eta informazioaz arduratu: Web orria, gmail. dropboxa, eta martxan jarriko den Meta programa. (Aurreko urteetako informazio interesgarria eta sortzen joaten dena dropboxean gordeko da, gamial bidez koordinatu da lantaldea, Udaletik eta bestelako erakundeetatik heldutako emailak errebasatuko dira, gauza interesgarriak gmail bidez konpartituz)
- Aktak jaso (Bilera bakoitzeko aktak jaso eta Gizarte Langileari bidali berak igotzeko, denborarekin lantaldeko kideek igotzea da helburua)

Momentukoak:


- Desfribiladorearen bateria aldatu edo kargatzeko kudeaketa egin.
- Audiobisualetarako diru laguntzak begiratu.
- Aldizkarian Ongizate Lantaldeak hartu beharreko lanak konkretatu.
- Aldizkarian Ongizate Lantaldearen bilera orduen aldaketa egiteko esan. (18:30etan izango da)
- Zinea kalean urtean behin egitea planteatu kulturari. Haurrentzat beharrean helduentzat edo familientzat bideratua. Formatuz aldatu.

Ardura hauez gain, aurrez banatuta zeudenak ere gogoratu dira:

- Janari banaketa.
- Memoria tailerra.
- Tipi-tapa eta gimnasia.
- Harrera eguna.

Lantaldekoen artean ardurak honela banatu dira:

- Leire: Janari banaketa (ekintzen fitxa bete), komunikazioa (web orria, drpbox, gmaila, emailen errebasoa, Meta).
- Maider: Memoria tailerra (ekintzen fitxa egin), Guztion Herrian ordezkari izan, eskolarekin koordinatu, kultur taldearekin koordinatu, audiobisualen diru laguntza begiratu, aldizkarian egin beharreko lanak finkatu, aldizkarian Ongizate Lantaldeko bilera ordua aldatzeko esan, zinea kalean proposamena landu kultur lantaldearekin.
- Aiora: Zinegotzien bileran parte hartu, emakume taldearekin koordinatu, martxoak 8 eta azaroak 25 ekintzen fitxa egin.
- Javier: Gimnasia eta Tipi-tapa (ekintzen fitxa bete), guraso elkartearekin koordinatu, desfribiladorearen bateria kudeatu.



- Marijo: Kultur taldearekin koordinatu, diru zain lanak egin.
- Itziar: Harrera eguna (ekintzen fitxa bete), Goiekiren jarraipena.
- Aktak bilera bakoitzean batek jaso eta landuko du. Gizarte Langileak igoko du printzipioz, denborarekin lantaldeko kideek igotzea da ideia.

3. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA LANTZEKO DIRU LAGUNTZA.

Emakumeen lantaldeko bileretan beharrak eta ideiak atera dira, eta, bertatik ateratako beharren baitan ekintza bat diseinatu eta diru laguntza, hau ordaintzeko erabiltzea erabakitzen da. Ekainaren 31 baino lehen erabili beharra dago diru laguntza.

4. BESTEAK:

Martxoak 8: Martxoak 8 emakume lantaldeak hartu du beregain. Azaroak 25a konkretatu beharrean da ea Ongizate lantaldeak edo emakume taldeak hartzen duen.

Guztion herria: Dokumentala ideia bezala mantentzea interesgarri izan daitekeela baloratzen da. Audiobisualetarako diru laguntza bat dago, eta, hau sakon aztertzea komeni da dokumentala egin ahal izateko laguntza egon baitaiteke. Haur eta gazteekin zine ikastaro bat egin behar da, grabaketa eta maketazioa landuko dira bertan. Ikastaro hau kontuan har daiteke dokumentala egiteko garaian.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
HURRENGO BILERA		
2019ko martxoaren 14an.		